

Morningstar Sustainalytics-ek 7,5 puntu eman dizkio, Espainiako finantza-sisteman eta munduko aurrezki-kutxen eta hipoteka-erakundeen artean bigarrena

Kutxabank munduko banku onenetako bat da jasangarritasunari dagokionez

- **Mundu-mailan kalifikazio onena duten enpresen % 1en eta bankuen % 2ren barruan kokatzen da, mailarik baxuenean, arrisku hutsalarenean (*Negligible Risk*)**
- **ESG arriskuen kudeaketa ‘strong’ gisa baloratu diote aztertutako 7 kategorietan, eta lidergo-posizioetan nabarmentzen da erresilientzian, datuen pribatutasun eta segurtasunean, eta jasangarritasunaren integrazioan.**

2025eko urtarrilaren 7an. Morningstar Sustainalytics-en ESG Risk ratingak berriro kokatu du Kutxabank jasangarritasunaren arloan munduko jarduera onena duten konpainien artean.

Entitateak lortutako puntuazioa hobetu egin da —7,5ekoa da, eta 2023an, berriz, 9,5ekoa zen—, eta bigarren bankua da, Espainiako finantza-sisteman (horren batez bestekoa 14,8 da), eta mundu mailan, aurrezki-kutxen eta hipoteka-erakundeen artean. 2024an, Kutxabank 17. postura igo da, eta iaz, berriz, 35.ean zegoen, munduan aztertutako 1.000 banku baino gehiagoren artean. Gainera, Espainiako lau enpresa onenen artean dago.

Sustainalytics-en analisiak munduan kalifikazio onena duten enpresen % 1en eta bankuen % 2ren barruan kokatu du Kutxabank, mailarik apalenean, arrisku hutsalarenean (*Negligible Risk*). Izan ere, ez du identifikatu bere interes-taldeetan eragin negatiboa izan dezakeen gertaerarik, ezta ingurumen-eremuan edo eremu operatiboan ere.

ESG arriskuen kudeaketa ‘strong’ gisa baloratu zaio aztertutako zazpi kategorietan. Kategoria horiei dagokionez, munduan edo sektorean lidergo-posizioetan nabarmentzen da honako hauek: Erresilientzia, Datuen pribatutasuna eta segurtasuna, eta ESG printzipioak finantza-esparruan sartzea. Halaber, erakundearen programen, praktiken eta politiken sendotasuna azpimarratzen du azterketak.

ESGren datu, kalifikazio eta ikerketen erreferente globalak 15.800 konpainia —eta, horien artean, 1.000 banku baino gehiago— aztertzen ditu munduan honelako alderdietan: enpresa-etikaren kudeaketa, datuen segurtasun eta pribatutasuna, ESG irizpideen integrazioa bere produktuetan, gobernu korporatiboa edo giza kapitalaren kudeaketa.

Eragile aktiboa jasangarritasunean

Kutxabankek negozio-eredu jasangarrian aurrera egiteko konpromisoari eusten dio, bere jardueraren inpaktu positibo ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa maximizatuz bere interes-talde nagusien eta jarduten duen komunitateen artean.

Bankuak bere produktu- eta zerbitzu-eskaintza egokitzen du negozio-eredu eta bizi-estilo jasangarrien eskaera gero eta handiagoari erantzuteko, eta finantza-inklusioko programetan lan egiten du, irisgarritasunaren ikuspegitik. Era berean, ESG alderdiak txertatzen ditu bere erabaki estrategikoetan, bereziki klima-aldaketaren ondoriozko arriskueta eta aukera edo abaguneetan.

Bankua eragile aktiboa da, kapital pribatuko fluxuak inbertsio jasangarrietara bideratzen ditu, eta negozio-eredu jasangarriagoetarako trantsizioan laguntzen die bezeroei. Horretarako, ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-irizpideak barne hartzen dituzte bankuaren finantzaketa-produktuek.

Copyright ©2024 Morningstar Sustainalytics. Eskubide guztiak erreserbatuta. Hemen jasotako informazioak, datuek, analisiak eta iritziek (1) Sustainalyticsen eta/edo haren eduki-hornitzaileen jabetzako informazioa biltzen dute; (2) ezin dira kopiatu edo birbanatu, berriazko baimena izan ezean; (3) inbertsio-estrategia baten zati gisa ez dira ingurumen, gizarte edo gobernantzarekin lotutako inbertsio-aholkularitza, ez eta inolako produktu, proiektu edo inbertsio-estrategiaren onarpen edo ezein gai zehatzen kontsiderazio ere; (4) informazio-helburuekin soilik ematen dira; eta (5) ez da bermatzen osoak, zehatzak edo egokiak direnik. ESGrekin erlazionatutako, eta dokumentu honetan jasotako edo adierazitako informazioa, metodologiak, tresnak, kalifikazioak, datuak eta iritzia ez daude Indian erabiltzeko edo bertan kokatutako bezero edo erabiltzaileei banatzera zuzenduta edo horretarako pentsatuta, eta ez dago baimenduta horiek banatzea Indian bizi diren pertsona edo erakundeei. Ez Morningstar Inc.ek, ez Sustainalytics-ek, ez horien eduki-hornitzaileek ez dute inolako erantzukizunik onartzen informazioa erabiltzeagatik, informazioari dagokionez hirugarrenek egindako ekintzengatik, eta ez dira informazioarekin edo haren erabilerarekin lotutako merkataritza-erabakien, kalteen edo bestelako galeren erantzule ere. Datuen erabilera <https://www.sustainalytics.com/legal-disclaimers> helbidean eskuragarri dauden baldintzen mende dago.